ESKOLAKO AGENDA 21 2014-2015 - BEASAIN

“ELIKADURA JASANGARRIA”

Gaur goizean, Beasaingo bost ikastetxeetako ikasleak eta Koldo Agirre Alkatea eta Aitor Larburu zinegotzia Eskola Agenda 21eko Udal audientzian elkartu dira Udaletxeko Batzar aretoan.

Hamargarren ikasturtea den honetan “ELIKADURA JASANGARRIA” gaia landu dute, bai ikastetxeko egoera ikusteko eta aztertu dituzte zein diren arazoak eta alternatibak. Herriko egoera ere aztertu dute, herriko diagnostikoa eginez.

Herriko diagnostikoa gauzatzeko hainbat irteera egin dira herrian zehar, inkestak ere egin dituzte, udalerriko eta eskualdeko datuak eta informazio ezberdinak aztertuz.

Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleek egindakoa:
Herri mailako diagnostikoa aurrera eramateko elikadura ohiturak aztertu dituzte goizeko gosaria edo / eta ekartzen duten hamaiketakoari begiratuz (garaikoak diren edo ez, bertakoak diren edo ez,...), era berean gosarian edo /eta hamaiketakoan sortzen dituzten hondakinak ere aztertu dituzte. Honetarako galdetegi bat luzatu dute eta emaitzak aztertu dituzte. Ondorengo ondorio hauek atera direlarik:

- Gehienek gailetak edo zerealak gosaltzen ditugula.
- Gure aitona -amonek gu baino osasuntsuago gosaltzen zutela eta gainera hondakin ez organikorik ez zituzten sortzen.

Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko ikasleek egindakoa:
Elikadura eta kontsumo ohiturak galdetegi baten bidez ezagutu ditugu, etxean eta kaleko herritarrei egin diegu galdetegi hau. Inkesta egin dugu eta hauek dira ateratako ondorioak:

- Ekartzen dugun hamaiketakoa ez dela oso osasuntsua.
- Hamaiketakoa bilduki ez jasangarrietan ekartzen dugula.

Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko ikasleek egindakoa:
Herriko azokaren azterketa egin dugu, honen gaur egungo errealitatea ezagutzearren: bertan dauden postuak, ekoizleak, bertan saltzen diren produktuak,.... ekoizleen egoera zein den (nahikoa saltzen duten,...) erosleen adina, mota, erosketaren zergaitia..... bestetik herriko elikadurarekin zerikusia duten denda txikietako dendariei galdeketa egin diegu: nongo produktuak dituzten,.... ekolojikoak diren ala ez, ... zergaitia ... erosleen eta beraien gogobetetzea ....

ONDORIOAK

- Azokako produktuak bertako asko eta kalitate handikoak dira.
- Zaila egiten zaie supermerkatu handiekin lehiatzea.
- Jende gaztea gutxi hurbiltzen da azokara.....

Bigarren Hezkuntzan egindako lana:
DBHko ikasleek lehenik udalerrian dauden produktu ekologiko edo /eta bidezko merkataritzakoen salmenta puntuak identifikatu ditugu eta ondoren dendetara bisita egin dugu, bertan duten eskaintza aztertuz.
Udalerriko eta eskualdeko kontsumo taldeak ere ezagutu ditugu Asko zabaltzen ari den erosketa-salmenta eredua da kontsumo taldeena. Herriz herriz, ekoizlez eta eroslez osatzen dira taldeak. Kontsumitzaileek hilero kuota bat ordaintzearen truke, astero saski bat jasotzen dute. Barazkietatik hasi eta arrautza, haragi, ogi nahiz esnekiz osatutako saskia osa dezakete, talde bakoitzeko partaideek adosten duten bezala

- Kontsumitzaile arduratsua izateak hartzen dituen esparru anitzak aztertu ditugu (produktuak erosten ditugunean non sortuak diren ziurtatu beharko genuke, beharrezkoa duguna bakarrik kontsumitu beharko genuke....) eta arduragabeko kontsumoak dituen ondorioak ere aztertu ditugu (munduko baliabideak agortu)
- Etiketatan ez gara fijatzen eta bertan informazio garrantzitsua dago jasangarritasunari dagokionez.

Batxilergoko ikasleek egindakoa:
Elikadura subiranotasun kontzeptua eta Milurteko helburuen arteko Gosea eta pobrezia erradikatzeko helburuak ezagutu ditugu. Hausnarketa bat egin dugu gaur egun munduan elikadurarekin erlazionatuta dagoen arazo larriarekin eta hauei aurre egiteko dauden esperientzia ezberdinak topatzen jardun dugu.

- Jende gehienak elikagaiak supermerkatu handietan erosten ditu, prezioetan bakarrik fijatzen delako eta erosoagoa ere badelako. Jendeak prezio merkeak nahiago ditu kalitatea baino.

Martxoaren 24an ikastetxe guztietako ikasle ordezkariak Eskolarteko Foroan bildu ginen Udaletxean eta gero taldeka, ondorioak, konpromisoak eta proposamenak adostu genituen. Amaieran talde guztiak Batzar areto honetan bilduta orain aurkezten ari garena adostu genuen.

KONPROMISOAK

Gure elikadura hobetzeko eta jasangarriagoa izateko guztion lana beharrezkoa dela badakigu eta ikasleok gure esku dauden konpromiso batzuk hartu edo berritu ditugu:

1- Norberak bere jana sukaldatuko du. Erosi beharrean landu ahal denean norberak landuko du.
2- Burujabetza bizitza osasuntsuaren oinarria da.
3- Hondakin gutxiago sortzen saiatuko gara. Bildukin gutxi dituzten elikagaiak hamaiketakorako ekarriko ditugu.
4- Ikastetxean bai irratitik eta baita karteletan jendeari jakinarazi aldizka azoka eguna eta zeintzuk diren garaiko produktuak.
5- Sasoiko eta bertako produktuak kontsumituko ditugu.
6- Janaria errespetuz tratatuko dugu. Platerean gutxiago jarri, baina jarritako guztia jango dugu zaborretara ezer bota gabe.
7- Etxean eguneroko elikagaien erosketak egiteko orduan aktiboki parte hartu (gurasoekin gai honetaz hitz eginez) hainbat elikagai kontsumitzeak

dakartzan ondorio positiboak eta negatiboak aztertuz. Adibidez: etiketak kontsultatzen, ekoizleez galdetzen, jatorria ezagutuz, ...

8- Erosketak egiterakoan etiketetan fijatuko gara, ea nongoak diren eta nola iritsi diren elikagaiak eta bildukinari ere gehiago erreparatuko diogu.
9- Denda txikietan eta azokan erostea supermerkatuen ordez, herriko merkataritza bultzatuz eta hau desagertu ez dadin.

PROPOSAMENAK

Elikadura jasangarriari buruz Udalari luzatzen dizkiogun proposamenak:

1- **Geletan ontzi marroia jartzea: Haur hezkuntzan eta 1. zikloan frutaren eguna ospatzen da eta faltan nabaritzen dute ontzi marroia.**
2- **Elikagai enpresei bilduki jasangarriagoak egitea eskatzea.**

Zuen eskolako geletan ontzi marroia jartzearen proposamena oso ondo iruditzen zaigu. Honetarako, ikastetxe bakoitzari eskatuko diogu bakoitzak zenbat kubo behar dituen esateko eta Udalean baloratu ondoren esango diegu bakoitzari zenbat emango dizkiegun.
Bilduki jasangarriagoak eskatzeko garaian, Udalak inguruan dauden denda handietara (supermerkatuetara...) zuek egin duzuen lana azalduz eskutitz bat bidaliko du eta zuek egindako eskaera luzatuko du. Honelako ekintza txikiak eginez ekintza handietara iritsiko baikara.

Udalari azokaren inguruan egiten dizkiogun eskaerak:

3- **Instalakuntzak hobetzea: argia, kalefakzioa, kristalak, toldoak, itxitura ipini, musika... Zergak jaistea ere, honela postu gehiago jartzeko aukera emanez.**
4- **Jende gehiago etor dadin azoka eguna asteburuetan eta arratsaldeetan ere egitea edo eguerdian luzeago egitea.**
5- **Sasoiko produktuak, eta produktu ekologikoak promozionatzea: Zabaldu kanpainen bidez, karteletan, eskaintzak..... bertakoak, garaikoak eta zein nolako kalitatezko produktuak saltzen diren gure azokan.**
6- **Azokari indarra emateko banatu saltzaileen artean, azokan produktuak erosten dituztenen artean kotxez aparkatzeko erraztasunak otaren bono batzuk edo .....**

Azokan hainbat hobekuntza eginda daude: toldoak jarri dira haizea eta hotzetik babesteko, lurra eta paretak margotu egin dira argitasun handiagoa edukitzeko, elektrizitatea eta beharrezko materiala Udalak jartzen du..... Baserritarrak eta produktu ekologikoak saltzen dituzten postuak ez dute inongo zergarik ordaintzen. Udalarentzat beraiek lehentasuna dute eta beti dute lekua.

Astearteaz gain, ostiral goizetan ere azokara etortzeko aukera daukate, beraiek aukeratzen dute. Gure ustetan, baserritarrak ez dute beraien lan denbora luzatu behar. Guk, erosleak, beraien baserrira gerturatu gaitezke eta bertan erosi behar ditugun produktuak. Honez gain, Beasainen bi kontsumo talde daude eta bertan ere apuntatu gaitezke.

OTA-ren bonoak komertzioetan oparitu ziren baina erosleek ez zituzten erabili, OTA-ren kostua ez baita oso handia. Azoka ondoan kale asko OTA gabe daude eta ez da behar hori ikusten. Gainera, OTA-ko gunean aparkatuko balitz, lehenengo 15 minututan doan da eta nahiko denbora dago azokara gerturatu eta erosketak egiteko.

Beasainen bertako denda eta produktuez egiten ditugun proposamenak:

7- **Elikadura jasangarriari dagozkion produktuen ekoizleei, saltzaileei eta banatzaileei (baita honen inguruan sortu diren kontsumitzaile taldeei) lagundu, beraien jardueren berri emanez.**
8- **Lagundu zergak jaitsiz beraien eskaintza handitzeko.**

Beasaingo Udalak elikadura jasangarriaren alde lan egin nahi du eta baratza ekologikoen proiektua martxan jartzen ari da. Lur publiko batetan, industrial bezala izendatua zegoena, nekazal jarduera bat jarriko du martxan. Herritarren, elkarteen eta ikastetxeen eskura 110 bat baratza jarriko ditu. Bertan nekazaritza ekologikoa bakarrik egingo da eta gaur egun, proiektu hau lantzen ari da buru-belarri.
Beraz, herritarrari lur zati bat eskaintzen dio berak bere elikagaiak lantzeko dagokion garaian eta era ekologikoan.

Herriko baserritarren inguruan egiten dugun proposamena:

9- **Herriko baserritarrei produktu ekologikoak ekoiztu ditzaten laguntzak eskaini: ekonomikoak, formakuntza... Horren trukean beraiek euren produktuak merketu ahal izateko.**

Lehen aipatu dugun bezala, baserritarrak azokara gerturatzeko laguntza asko dauzkate, zergarik ez eta gainera beraientzat beti dago lekua. Baina gu erosle bezala beraiengana gerturatu gaitezke eta beraien baserrian egin gure erosketak eta honela, erosle gehiago izaten badituzte beraiek produktuen prezioa merkatu dezakete.

Hauek dira denda txikien inguruan adostu ditugun proposamenak:

10- **Publizitate gehiago ematea denda txiki eta bertako produktuei, komunikazio kanpaina bat antolatu herri osoari irekita.**
11- **Ez eman baimenik supermerkatu gehiago irekitzeko.**

Beasainen merkatu librea existitzen da. Udalak legeak eskatzen dituen betekizunak eskatzen dizkie denda guztiei.
Supermerkatu gehiago ez badugu nahi irekitzea erosleek asko egin dezakete. Bakoitzak denda txikietan erosiko bagenu eta supermerkatu handi hauetara ez bagina joango, supermerkatu handi hauek itxi egingo lirateke. Denon ardura da erabakitzea erosketak non egin behar ditugun.
Azokara etortzen den baserritar batek esaten duen moduan, produktu ekologikoak erosten dituzten pertsona asko gaixorik daude edo gaixotasun bat duen pertsona bat dute bere alboan..... elikadura ekologikoaren garrantziaz ordun jabetzen gara.

Urrian minbiziaren aurkako elkartearekin elkarlanean, “MARTXA BERDE” bat antolatuko dugu. Bertan elikaduraren garrantzia landuko dugu eta azalduko digute elikadurak garrantzi handia duela gure bizi kalitatean.
Beraz, denon ardura da elikagai ekologikoak, garaian garaikoak eta bertakoak erostea eta kontsumitzea. Beasaingo Udalak ere helburu berdinak dituenez, elkarrekin lana egingo dugu lortzeko asmoz.

Bukatzeko Udalak gosari osasuntsu bat (10 intxaur, yogurth bat eta 5 gaileta zerealanak) banatu digu. Gosariko elikagaiak bertakoak, garaikoak eta ekologikoak dira.